

Ebazpena: R051/2023

Espedientea: 23/2017

Vitoria-Gasteizen, 2023ko maiatzaren 8an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Eta honakoa erabaki dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Arabako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, AFA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea zeinek duen SSA zergapekoak lurralde erkidean bakarrik lan egiten omen duten langile jakin batzuen lan pertsonalarengatik 2012an egindako atxikipenak ordainarazteko eskumena. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 23/2017 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- SSA zerga-egoitza Araban duen sozietatea da, eta 2012an bere enplegatuei egindako lan-atxikipenak AFAn sartu zituen.

2.- 2016ko urtarrilaren 21ean, ZAEAk prozedura bat abiarazi zuen, lurralde erkidean soilik lan egin omen zezaketen zenbait langileren (gatazka planteatzeko idazkiarekin batera aurkeztutako II. eranskinean daude zerrendatuta) atxikipenak ordainarazteko eskumena egiaztatzeko.

3.- 2017ko otsailaren 13an, eskumenik ez zuen administrazio batean sartu izanaren txostena hasiz burutu ziren jarduketak, zenbait langilek beren zerbitzuak lurralde erkidean eman zituztela egiaztatu baitzen.

4.- 2017ko otsailaren 20an, txostena igorri zitzaion AFari, zegokion bidalketa-eskabidearekin batera.

5.- 2017ko martxoaren 10ean, AFAk ezetsi egin zuen bidalketa preskripzioagatik.

6.- 2017ko maiatzaren 4an, ZAEAk inhibititu zedila eskatu zion AFari, eta hark isilbidez berretsi egin zuen bere eskumena.

7.- 2017ko uztailaren 3an, ZAEAk eskumen-gatazka planteatu zion Arbitraje Batzordeari; 23/2017 espediente-zenbakia esleitu zitzaion eta prozedura arruntaren bidez izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion

zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

2.- Preskripzioa

Auzitegi Gorenaren jurisprudenzia baketsuak (besteak beste epai hauetan biltzen da: 2015eko abenduaren 15ekoa (ECLI: ES: TS: 2015:5337), 2022ko otsailaren 10ekoa (ECLI: ES: TS: 2022:596), 2020ko abenduaren 3koa (ECLI: ES: TS: 2020:4077), 2021eko urtarrilaren 28koa (ECLI: ES: TS: 2021:372) eta 2020ko maiatzaren 18koa (ECLI: ES: TS: 2020:1010)) adierazten du zerga-kreditu juridikoaz gain badagoela administrazioen arteko zuzenbide publikoko kreditu bat eta, horren arabera, eskumenik ez duen administrazioan bidegabeko diru-sarrera egiten den unean hasten dela kontatzen erreklamatzeko preskripzio-epea eta epe horren preskripzioa ez dela eteten hirugarren batek (zergapekoak) egindako jarduketengatik edo hirugarren hori dela-eta.

Administrazioen arteko kredituaren aurreneko erreklamazioa 2017ko otsailaren 20an egin zenez, preskribatuta leudeke errekerimendu hori baino 4 urte lehenago ordaindutako atxikipenak, hau da, 2012ari dagozkienak.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKITZEN DU

1.- Preskribatutzat jotzea ZAEAREN administrazioen arteko zuzenbide publikoko kreditua, SSAk AFAn bidegabeki sartu zituen eta gatazka planteatzeko idazkiari atxikitako II. eranskinean zerrendatuta dauden enplegatuen 2012ko lan-atxikipenei dagokiona.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta SSARI jakinaraztea.